

Txiikittu

2015eko maiatza

152 zbk.

Herriko idazle
GAZTEAK





Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkartea
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Ainara Lavado, Maider Aranberri,
Ana Aizpurua eta Eibarko
ikastetxeetako ordezkariak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa eta maketazioa

Ainara Lavado, Maider Aranberri, Ainhoa
Luz eta Ana Aizpurua.

Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako argitalpena

LH eta DBHko Ipuin Lehiaketa

XXI. Ipurterre 2015

... eta kitto! Euskara Elkarreak Eibarko ikastetxeekin elkarlanean, Ipurterre Ipuin Lehiaketaren XXI. Edizioa antolatu du. LH eta DBHko ikasleek parte hartzen duten lehiaketak, aurten, 1.000 ipuin inguru jaso ditu. Buru-belarri jardun duzue Eibarko ikasle guztiek, zuen irakasleen animoak jasota, segurua gaude, eta igerri dugu. Lan asko egin duzue eta hori eskertzekoa da.

Beraz, irabazleei zoriontzear gainera, parte hartu duzuen guztiei ere gure eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu. Eta jarraitu horrela, euskeraz idazten eta irakurtzen; zeinek daki, agian etorkizuneko idazleren bat dago zuen artean!

Ikusiko duzuen moduan, esku artean duzuen Txikitto! hau berezia da, ia osorik eskaini diogu Ipurterre lehiaketari. Hurrengo orrialdeetan saritutako ipuinak irakurtzeko aukera izango duzue, baina beste hainbat atali ere egin diegu lekua.





IPURTERRE 2015

LH eta DBHko Ipuin Lehiaketa



Hiru lagun eta lapur bat!


Bazen behin zirko bat oso-oso famatua zena. Eta egun batean lapur bat etorri eta zas!, zirkoan zeukaten guztia kendu zien. Hurrengo egunean denak poz-pezik esnatu ziren, Toni pailazoa, Violet akrobata, Kika umorista. Denak negar eta negar ari ziren, 5 ordu barru zirkoa hasten zelako eta ez zeukaten ezer, ezta lan egiteko ere. Bat-batean... Tonik esan zuen:

– Nik plan bat dut! Ni kanpora joango naiz eta zu Violet auzoko guztiei galdetu ea lapur bat ikusi duten.

Kikak esan zuen:

– Nik denda guztietan behar dugun guztia erosiko dut.

Ados jarri ziren eta zirkoa beti bezala geratu zen. Azkenean emanaldi polit bat egin zuten. Eta horrela ikasi zuten denak batera gauzak eginez dena lortu ahal dela.



LH1

LH2

Lucia Alonso Bravo
La Salle Isasi

Valerioren erlojua

Orain kontatuko dizuedan istorio hau, niri "Torre" baserrian duela gutxi gertatutako pasadizu bat da. Nire birraitona bisitatzeko asmoarekin joan nintzen eta orduan gertatu zen. Nire birraitona, Valerio deitzen da.

Aspertuta nengoen eta Valerioren gauza zaharrak zeuden ganbarara joan nintzen, ea zerbait interesgarri aurkitzen nuen. Ganbaran nengoela, egurrezko kaxa zahar bat aurkitu nuen: tiratxinas bat, liburuxka bat, eguneroko bat... aurkitu nituen. Baina gehien liluratu ninduen, erloju zahar eta bitxi bat izan zen. Erlojua hartu eta ondatuta zegoela konturatu nintzen. Erlojuari soka ematen hasi nintzen baina ez zen ezer gertatu. Bat-batean, buelta pila bat ematen hasi ziren orratzak, beraiek bakarrik! Zorabiatu egin nintzen eta berriz nere onera etorri nintzenean, ganbara, berri-berria zegoela ikusi nuen. Kalera irten eta askoz etxe gutxiago zeudela ikusi nuen. Mutiko bat ikusi nuen eta nola deitzen zen galdetu nion. Berak, Valerio deitzen zela esan zidan: orduan konturatu nintzen, bera, nire birraitona zela eta nik denboran atzera egin nuela!!! A ze sustoa! Zer egin behar nuen? Momentu hartan, ideia bat etorri zitzaidan burura: erlojua lortuko banu, sokari atzera eman eta berriz, nire garaira bueltatuko nintzateke.

Orduan, Valeriorekin tratu bat egin nuen: nik nire erlojua emango nion eta berak neri berea. Eta hala egin genuen. Sokari atzera eman nion, eta berriz nire garaira bueltatu nintzen. Hurrengo egunean, etxeko sarreran daukagun argazkian, Valerio ikusi nuen. Txundituta geratu nintzen, nik emandako erlojua zeramala ikustean! Orduetik aurrera, garai hartako kontuak birraitonari entzutea gustatzen zait.



LH3

LH4

Joanes Lazarobaster
Arrizabalaga
J. Mogel Ikastola





LH5

LH6

Maddi Tejada Delgado
San Andres ikastetxea



Oneren abentura

Arratsalde eguzkitsu batean, mendian nengoen zuhaitzetako hostoen arten liburu bat irakurtzen. Bat- batean norbaitek deitzen ninduela sumatu nuen:

– Ane, Ane!!

Nik, nire izena esaten zituen oihuei jarraitu nien eta untxi batekin topo egin nuen. Ni harrituta nengoen, noiz hasi dira untxiak hitz egiten? Hori zen buruan neukan galdera bakarra. Bueno hori alde baten utzita, untxiak hurrengo hau esan zidan:

– Ane, zure laguntza behar dugu, ni lur azpian dagoen herri batean bizi naiz, han dena desberdina da, ura txokolatzekoa da, bidea gailatzekoa, belarra gozokizkoa eta etxeak harrizkoak, bueno denak erreginarena izan ezik, berarena izotzekoa da, berak eguzkia gorroto du eta horregaitik herri guztia izozten ari da, orduan guk ezin dugu jan eta gosez hilko gara. Zure laguntza behar dugu.

– Baina eguzkiak izotz guztia urtuko du!!– esan nion nik.

– Arazoa da eguzkia ere izotz duela eta gainera, orain herria ilun-iluna dago eta hotz handia egiten du.– Erantzun zidan.

– Bueno eraman nazazu zure herrira.

– “1, 2, 3 GOAZEN BERRIRO”!! – esan zuen untxiak.

Bat-batean untxiaren herrian nengoen. Nola deitzen zen galdetu nion eta Txuri deitzen zela esan zidan. Txuri eta biok erreginarenean gaztelura hurbildu ginen eta gaztelu barrura sartu ginen. Erreginarenean etxea atez inguratuta zegoen eta danak zaharrak eta zikinak zeuden, ate baten beste aldetik hitz batzuk entzuten ziren:

– Herriko bizilagun guztiak izoztuko ditut eta apaintzeko nire saloian jarriko ditut. Ondoren herri hau nirea izango da. Jajaja!!





IPURTERRE 2015

LH eta DBHko Ipuin Lehiaketa



Orduan pauso batzuk entzun ziren eta logela batean sartu ginen. Aaahhh!! Erregina gaiztoa bere planarekin hasi da!!

– Ideia bat daukat!– esan zidan Txurik:

– Hango mendi punta hartan izen gabeko gizon bat bizi da. Esaten dutenez ez du familiarik ezta lagunik ere, baina bera herriko jakintsuena da. Berarengana joan eta laguntza eskatuko diogu.

Orduan Txuri eta biok izen gabeko gizonaren etxera abiatu ginen. Heldu ginenean sartu eta herrian gertatzen zena kontatu genion, berak irtenbide bakarra zegoela esan zigun eta hauts asko zeukan liburu bat atera zuen bere apaletik.

– Liburu horretan edabe magiko bat egiteko gauzak aurkituko dituzue eta erreginak edaten badu desagertu egingo da.– esan zigun gizonak.

Bat-batean erreginaren ahotsa entzun genuen eta korrika batean bakoitza leku batean ezkutatu ginen. Txuri mahai azpian ezkutatu zen eta erreginak harrapatu zuen. Bi aldiz pentsatu gabe izoztu zuen eta gero Txuri, bera eta zerbitzariak alde egin zuten.

Gizona eta ni oso triste jarri ginen baina batez ere ni. Liburuan jarritako gauzak hartzera joan ginen. Lehenengo gauza, ardiaren artilea zen eta bidean zegoen ardi bati artile piskat moztu genion. Bigarren gauza 3 gozoki ziren, izoztu gabe zeuden gozoki bakarrak ahate baten etxean zeuden, bera urte osoa ibili zen gozokiak hartzen momento hau helduko zela zekielako, eta bere etxera joan, 3 gozoki eskatu eta bidean aurrera egin genuen. Azken gauza falta zitzaigun bakarrik eta 5 izotz zati ziren. Harri bat hartu eta nire indar guztiarekin bota genuen, lurra zati askotan apurtu arte. Orduan 5 zati hartu eta izen gabeko gizonaren etxera abiatu ginen biok. Dena lapiko batean nahastu eta usain oso txarreko edabe bat atera zitzaigun. Pote batean sartu eta erreginaren gaztelura joan ginen.

Gaztelu barruan herriko bizilagun guztiak izoztuta zeuden eta nire lagun berria eta ni erregina zegoen gelara sartu ginen bere zerbitzariak izango bagina bezala.

– Hemen dago zure tea.– esan nion.

Eta erreginak den-dena edan zuen trago batez. Segundo batzuk geroago erregina lurrerantz jausten hasi zen eta momento batetik bestera, erregina ez zegoen gurekin. Korrika batean izoztuta zeudenengana joan ginen eta zerbitzariak ekarri zuen edabe magiko bat bota genien guztiei, eta noski, herriari ere!!

Handik aurrera herri hartako bizilagun guztiak pozik bizi ziren eta badakizue nor den herriko erregina berria?

Ba, Txurik eta nik eraman genuen aurrera herri hori eta izen gabeko gizonari izena jarri genion. Jakin nahi duzue zein den bere izena?

Ba, beste batean kontatuko dizuet!!!





DBH1

DBH2

June Ibarloza
Mogel Isasi BHI

Ėuskararen etorkizuna gure esku dago

Kaixo, nire Nafarroako lagun kuttuna. Duela pare bat hilabete idatzi nizun azken gutuna eta jaso dut zure erantzuna. Gure arteko harremana gaztelera izaten da beti.

Laster, oportetan, berriro elkar ikusteko aukera izango dugu hondartzan, baina hori baino lehen proposamen bat egitea nahiko nizuke, nire teoria bat egia bihurtu daitekeen frogatzeko.

Nire teoria da sare bat egin behar dugula: euskaraz dakien euskaldun bakoitzak euskaraz ez dakien persona batekin lotuta egon behar duela, hari euskaraz erakusteko. Hark ikasten duenean, bakoitza beste persona bati lotuko zaio eta horrela sarea handituz handituz joango da.

Zu nafarra zara eta gurasoek ez zuten euskara ikasteko aukerarik izan, baina zure aitona-amonek euskaraz zekiten. Bere seme-alabei euskaraz ikastea ongi ikusita ez zegoenez, ez zieten irakatsi eta, horregaitik, zure gurasoek ez dakite euskaraz. Nirekin zaudenean esan didazu zuri gustatuko litzaizukeela euskaraz ikastea, baina oso zaila egiten zaizula, gurasoek ez dakitelako. Hori konpondu genezake.

Nere proposamena da egunero gutun bat idaztea niri euskaraz eta emailaz bidaltzea.


Eta gainera, egunero internetez elkarrizketa bat edukitzea, eguna nola joan zaigun komentatzeko. Modu horretan, nahiz eta zure herrian eta etxean euskararik ez duzun entzuten, ikasteko aukera izango duzu. Zuk ikasitakoan, zure guraso eta familiari irakatsiko diegu, horrela zure ingurua euskaldundu arte. Zer iruditzen zaizu?

Azkenean, euskaldunok garenok ere gaztelera horrelaxe ikasi dugu. Nire etxean eta eskolan euskaraz hitz egiten zidaten beti baina kalean euskaraz ez zekiten pertsonekin komunikatzeko gaztelera ikasi behar izan nuen. Batzuetan, gaztelera hitz egiten zidatenean, nik euskaraz erantzuten nien. Baina konturatu nintzen hori ez zela konponbidea, azkenean ez ginela

ulertzen. Beno, hobeto esan, euskaldunok ulertzen dugu gaztelera baina ez alderantziz. Horregaitik, Euskal Herriko hizkuntza euskara dalako, ez dakitenei, eta ikasi nahi dutenei, lagundu egin behar diegu, nola? Arrantzan erabiltzen den moduko sarea eginez.

Hasiko gara bion artean sarea egiten?

PD: Ez kezkatu hasierako zure gutunetan akatsak egiten badituzu, konturatuko zinen gaztelera idazten ditudan gutunetan ere akatsak egiten ditudala, ezta? Sekula ez didazu esan baina...





DBH3

DBH4

Maddi Alberdi
Mogel Isasi BHI

Ĥuskararen etorkizuna gure esku dago

Aspaldiko,

Gaur amonaren lehen eguna izan da zaharren egoitzan eta sartu-irten bat egitea pentsatu dut. Ikusi eta muxu handi bat eman diot.

– Kaixo amama! Zer moduz pasa duzu lehen eguna? Egin ahal duzu lagun berririk? Dena kontatu behar didazu!

– Kaixo laztana, eskerrik asko bisitan etortzeagaitik. Dena da desberdina hemen, baina pixkanaka ohitu naiz. Zer moduz zu? Askok ikasi al duzu gaur?

Denbora luzez egon gara hizketan, amonaren lagun berri bat hurbildu zaigun arte.

– Hola Maite, ¿Qué tal el día? Mira te presento a mi nieta.

Harriturik gelditu naiz, nire amona gazteleraz berbetan? Hori bai ez nuela espero.

Gure ondoan eseri da Maite. Ordubetez hizketan aritu gara, gazteleraz noski, ez baitaki euskaraz. Euskal Herrira orain dela hamabost urte iritsi zela kontatu digu, eta ezin izan diot galderari eutsi.

– Después de quince años, ¿Cómo es que no hablas euskera?

Betiko aitzakiak jarri dizkigu. Nagusia dela, ikasten hasteko, oso hizkuntza zaila dela, gaztelera jakinda ez duela arazorik ezer egiteko... eta hori guztia esan ondoren, euskaraz hitz egiten jakitea gustatuko litzaiokeela esan du.

Beti berdina esaten du jendeak, baina ez dute saiakera txikienik ere egiten bizi diren herriko hizkuntza menperatzeko.

Gaur, amona eta biok gazteleraz aritzera behartu gaitu Maitek, berak ez zuelako ulertzen.

– Ez zaitetz harritu, hemen oso jende gutxi daki euskaraz, eta dakitenek ere ez dute egiten.– esan dit amonak.– Gure errua ere bada jendeak bertako hizkuntza ez ikastea, ez baitiegu inongo presiorik jartzen hori egiteko. Gaur egun, zerbait erostera joaten bagara, gazteleraz eskatzen diogu dendari edo bertako langileari, ulertuko ez digun beldurrez. Edo, ez al da horrela? Euskararen erabilera gure eskuetan dago. Norberaren eskuetan. Dakienak, ez dakienak ikas dezan saiakera egin behar du, eta dakitenak erabiltzera bultzatu behar ditu. Ez dakienak, aldiz, non bizi den pentsatu, eta ikasten saiatu behar du, dakitenei entzunez, eta pixkanaka ikasiz. Denok egin behar dugu ahalegintxo bat gure hizkuntzak etorkizu koloretsu bat izan dezan.

– Hori esan, eta begira gelditu zait.– Euskararen etorkizuna zure esku dago maitea.

Besarkada handi bat eman eta agurtu dut amona.

– Berandu da, bihar itzuliko naiz.

Ohean sartu, eta buruari bueltaka ibili naiz. Zuri gutun hau idaztea pentsatu dut, talde lanean dena errezagoa baita.

Gutxi batzuk dena egin beharrean, hobe da denok gure aldetik zerbait egiten badugu. Eman zuk ere pare bat buelta buruari, gogoratu nire amonaren hitzak, eta ez ahaztu, euskararen etorkizuna zure eskuetan dagoela.

Etorkizun koloretsu batean ikusiko garelakoan, muxu handi bat!





Magiaz peteriko
sari-
banaketa



Joan den maiatzaren 13an banatu ziren XXI. Ipurterre ipuin-lehiaketako sariak, eta aurten ere magiaz beterik etorri zitzaigun ekitaldia. Eriz magoak magia-trikimailu bitxiak egin zituen, eta bat baino gehiago aho zabalik gelditu zen.

Goizeko 10.00etan izan zen hitzordua Unibertsitate Laboralean, eta magia-ikuskizunarekin batera, aurtengo saridunek euren sariak jaso zituzten. Hona hemen aurtengo irabazleak:

LH 1-2 mailan **Lucia Alonso**
(La Salle Isasi).

LH 3-4 mailan: **Joanes Lazarobaster**
(Iturburu).

LH 5-6 mailan: **Maddi Tejada**
(San Andres).

DBH 1-2 mailan: **June Ibarloza**
(Mogel Isasi).

DBH 3-4 mailan: **Maddi Alberdi**
(Mogel Isasi).



Lucia Alonso



Joanes Lazarobaster



Maddi Tejada



June Ibarloza



Maddi Alberdi

ETXeko ARTISTA

Paperezko futbol baloia

Ikusiko duzu, zeinen erraz apaindu dezakezun logela, etxean eskura izango dituzun materialak erabiliz: paperezko platera, ahozapi beltzak eta zuriak eta kola.

Materiala:

- Paperezko platera
- Arkatza
- Kola
- Ahozapi beltzak eta zuriak
- Lazo edo artilezko hari zatitxo bat



Pausoak:

- 1.- Marraztu baloia paperezko platerrean.
- 2.- Platerraren atzekaldean lazo edo artilezko haria itsatsi.
- 3.- Zatitu ahozapia eskuz eta borobiltxo edo pelotatxoak osatzen joan.
- 4.- Baloiar eman diozun formaren arabera, itsatsi bolatxoak platerrean dagokien kolorearen arabera.

Ti-ta!

Arkatzak apaintzen

Behar duzun gauza bakarra, arkatzak, kolore desberdinetako zelo edo paper-tirak eta kola da. Zeloa edo paper-tirak arkatzaren inguruan itsatsi, gehien gustatzen zaizun bezala. Hara! Hori duzu zure arkatz berritua!





etxeko SUKALDARIA

Sagar-sandwichak

OSAGIAK

- ✓ Sagar gorri eta berdeak
- ✓ Esne kondentsatua
- ✓ Esnegain irabiatua
- ✓ Fruitu lehorrak edo txokolatezko pepitak

PAUSOAK

- 1.- Sagarrak ondo garbitu.
- 2.- Kendu bihotza sagarrei eta xerratan moztu.
- 3.- Esne kondentsatua fruitu lehor edo txokolate pepitekin nahastu.
- 4.- Ipini sagar xerra bat, esne kondentsatu eta fruitu lehor geruza bat, esnegain apur bat eta beste sagar xerra bat.
- 5.- Hor duzu meriendarako sandwich goxo-goxoa!



Arraultza frijitu sorpresa

OSAGIAK

- ✓ Yogur naturala
- ✓ Melokotoia
- ✓ Sagarra

PAUSOAK

- 1.- Yogurra goilaratxo batekin irabiatu eta zuringo forma eman ez plater gainean ipini.
- 2.- Melokotoia zuritu eta erdibitu ondoren, zati bat jogurtaren gainean ipini gorringoa balitz bezala.
- 3.- Sagarra zuritu eta patata frijituak balira bezala moztu. "Arraultzaren" aldamenean ipini eta listo!



ikastetxeetako berriak

Aldatze ikastetxeko ikasleak Miramoneko Eureka museoan egon ginen martxoan. Egun aparta pasatu genuen hainbat esperimentu egiten.



Urkizu ikastetxeko 5. eta 6. mailakoak Sosola baserrian egon ziren apirilean. 2. ziklokoak, berriz, Arritxuloko aterpetxean. Maiatzaren 12tik 25era 4. mailakoak igeriketa ikastaroa egiten ari dira Orbeako kiroldegian eta gauza bera egingo dute 3. mailakoek, maiatzaren 26tik ekainaren 8ra arte.

Arrateko Andra Mari ikastetxeko 3. Ziklokoek, Ikas2deak programaren barruan, Maider Yabar akrobataren bisita izan zuten. 2. ziklokoek irteera pedagogikoa egin zuten Debabarrena ezagutzeko (argazkian) eta 1. zikloko ikasleak Azpeitiako Natur Eskolara joan ziren. Maiatzaren LHko 1., 2. eta 3. ziklokoak Artium museoan egon dira. Maiatzaren 27tik 28ra, 1. zikloko ikasleak Gorozikako barnetegira joango dira. Horrez gain, eskolan bertan ere hainbat ekintza egin ditugu: drogomenpekotasun-tailerra eta Liburuaren altxorra, besteak beste. Eta nola ez, maiatzaren 18an, 5. eta 6. mailakoek Coliseoko bertso-jaialdian hartu zuten parte Eibarko beste eskola batzuekin batera.



Iturburuko 6. mailako neska-mutilek bisita interesgarria egin dugu Arma eta Industria Museora. Eibarrek, museoaren bitartez, erakusteko asko duela konturatu ginen. Burua landu eta gero, hankak ere landu genituen, oinez igo ginen-eta Iturburura! Bestalde, apirilaren 23an, Nazioarteko Liburuaren Eguna ospatu genuen Iturburun. Ikasle, irakasle eta langile guztiak irten ginen pasilloetara, bakoitza liburu bat irakurtzera. Saio arrakastatsua izan zenez, agian hurrengo urtean errepikatu egingo dugu.

La Salleko ikasleok, martxoan, Euskal Astea ospatu genuen. Hainbat bisita jaso genituen: Eibarko futbol taldeko Eneko Boveda, Pablo Berasaluze eta Aitor Zubieta pilotariak eta Mikel Urdangarin abeslaria. Bestalde, 3. ziklokoek bertsolari-tzan prestatutako ipuinak bertsoan aurkeztu zituzten. 5. eta 6. mailakoak Txuri Urdinera joan ziren izotz gainean patinatzerara, eta Aste Santutik bueltan, Arotz Eneara joan ziren 2. mailakoak. Kobazuloak ikustera joan ziren eta Margarita izeneko behi baten istorioa entzun zuten.

Apirila amaieran, La Salle astea ospatzeko, olinpiadak egin genituen, eta 4. mailakoak Arantzazura joan ziren, artzain-mundura, eta gatza-tua ere egin zuten.




Lehiaketa



AURREKO HILEKO IRABAZLEA

Oraingoan ere langile jardun duzue, eta aurreko hileko lehiaketako erantzun asko jaso ditugu. Zozketa egin eta gero, irabazlea **ELENE ARRAZOLA** izan da. Argazkian duzue saria jasotzen. Zorionak!

**BILATU 8
DESBERDINTA-
SUNAK**



**BIDALI ERANTZUNA EKAINAK 3 BAINO LEHEN.
...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA. Urkizu 11. Eibar.**

Izen-abizena

Adina Tel.....

bitxikeriak



Charles Osborne izeneko gizon batek 69 urtez izan zuen zotina.



Ba al dakizu zure urtebetetze eguna munduko beste 9 milioi pertsonekin partekatzen duzula?



Espazioan, astronautek, ezin dute negarrik egin. Grabitazio-atrakziorik ez dago eta malkoak ezin dira isuri.



Zakurrak eta katuak ere eskuinak edo ezkerak izan daitezke, pertsonak bezalaxe.



Ontzak dira kolore urdina bereizten duten hegazti bakarrak.



Estatu Batuetan 45 segundoro etxe batek sua hartzen du.



Libelula batek 24 orduko bititza dauka.



Walt Disney saguen beldur zen.



Pertsona batek, egunean, 15 aldiz egiten du barre.



Gameluek 3 betazal dituzte, harea-ekaitzetatik babesteko.



Pertsona batek 1.460 amets izaten ditu urtean.



Lurrak 6,588.000.000.000.000.000.000 tona pisatzen du.



Tipula mozten dugun bitartean txikleak jaten badugu, ez zaizkigu begiak narritatuko.



KRISPETA HEGALARIAK

Maite ditut oporrak eskolarik ez dagoelako, eta amonaren etxean egoten naizelako. Nire amona motorzalea da. Nahiko arriskutsua da motorrarekin. Amonari, motorrean ibiltzeaz gain, janaria prestatzea gustatzen zaio eta koaderno lodi batean idatzita ditu bere errezeta guztiak. Gaur, baratzean dagoela aprobetxatuta, errezeta liburua ireki eta kispeta hegalariai egitea erabaki dut.



AIO, PELAIO!

Gaur egun gurasoak dira etxeko zama daramatenak. Gurasoak, etxeko lanak egiten dituztenak, etxeko martxaz eta seme-alabez arduratzen direnak. Gurasoak...

Baina ez pentsa hori beti horrela izan denik. Ez horixe! Lehen ez zen horrela, eta Marik eta Martxelek dute aldaketaren errua.



HAU EZ DA ZOO BAT!

Malenek betidanik nahi izan du animaliaz inguratutik bizi, baina kaleko pisu batean ez da erraza, eta gurasoek ez dituzte ikusten eragozpenak baino. Oztopoak oztopo, Malenek aurrera egingo du. Lehenengo, ikasgelako landare eta animaliak zainduz. Gero, andereño Anak oparitutako arrain parearen gobernaturaz. Eta ondoren etorriko direnak...




NIRI EZ ZAIT FUTBOLA GUSTATZEN ETA ZER?

Handiak eta txikiak, berritsuak eta lotsatiak, gizenak eta argalak... persona guztiok ez gara berdinak eta zer?

Liburu hau ere ezberdina da, horrexegaitik da polita.


Baietz gustatu!!!



ERROTONDAN BUELTA

Urko, egunero bezala, autobusera igo da eskolara joateko. Eta, egunero bezala, autoz betetako errotonda baten geratuko da autobusa. Urkok izugarritzko txizagura du eta autobusaren geldidiala aprobetsatuko du jaitsi eta errotondan pixa egiteko.

Baina autobusak ihes egingo dio eta hantxe geratzea beste erremediorik ez du izango. Gauza harrigarriak ezagutuko ditu bertan.



BIHOTZAK DUN-DUN

Learen aita langabezian geratu, eta goiko Ixidro zaharra zaintzen hasi da. Neskatoak harreman hori, eskolako gorabeherak, familiako kontuak, lagunaren arteko abenturak eta abar azalduko dizkigu, baita noizean behin izaten dituen "bidaiak" ere. Bidaia horietan amets bera izaten du beti: oraindik zein bide den ez dakien lore bat topatu beharra.

ZAKUZHARRAK

Lesaka



K. Alijostes

zu margolari!